



**LAURA PENAGOS
RODRÍGUEZ**
ANTZEZLEA

Zauria

Duela egun batzuk galdetu zidaten ea hemen noizbait sentitu naizen baztertuta nire azalaren koloreagatik. Ezetz erantzun nien berehala. Ez dakit nondik erantzun nuen.

Egunak pasa eta gero etorri zitzaidan hausnarketa burura. Nor naiz ni denboraren baitan? Nor naiz ni denboratik kanpo begiratzen dudanean? Emakume beltza naiz? Emakume indigena naiz? Emakume zuria naiz? Emakume mestizoa naiz? Neure buruari galdetzen diot nor naizen, eta batzuetan ez dakit. Garraztsua da hau jakitea? Zertarako?

Txikitan, ispilu aurrean galdetzen nion aitari –“Aita, zergatik ez naiz zuria? Zu gizon zuria zara, eta baita ahizpak ere”–. Ahizpak bezalakoa izan nahi nuen; are gehiago, Amerikako Estatu Batuetan bizi den osabak ekarri zidan Barbie panpina izan nahi nuen.

Aitak bi lagun zituen: batek “la india Vivis” deitzen zidan, Viviana baita nire bigarren izena; eta besteak, “Chorrito e jumo”. Kea esan nahi zuen bigarren horrek.

Ez nuen beltza izan nahi, ez nuen indigena izan nahi. Zergatik ez, Laura? Kolonialismoak gizaki zuriaren botere hegemonikoa oso ongi irakatsi zigun. Feminismo kolonialaren jardunaldiak egin zituzten Durangon. Emakume beltz haiek ikusi nituenean, Audre Lordek

esaten zuen bezala “gure ahizpak”, lotsa handia sentitu nuela onartu behar dut. Dena zentzugabea zela sentitu nuen.

Nork sufritu du gehiago? Noiz arte bizi beharko dugu munduan biktima gisa? Zergatik ezarri nahi diegu gure egia besteei? Gizonezkoen munduari egozten zaion oldarkortasun hori sentitu nuen, heldutasun ezarekin nahasia. Infantilizatua sentitu nintzen, duintasunik gabe sentitu nintzen, ez nintzen ordezkatuta sentitu. Gloria Azalduak idatzi zuen bezala, “bandoen arteko sutan harapatuta, bost arrazak zure bizkarrean daramatzazunean, zein aldetara jo jakin gabe”. Nire bihotzean tristura bat geratu zen. Mendeak pasatu dira, baina zauri hau zabaltzen ari da eta ustel irauten du.

Kostatu zait zauri hau aurrez aurre ikustea, ez nuen nire sentitzen, ezkutatatu egiten nuen errurik eta lotsarik ez sentitzeko. Zauri hau entzun, besarkatu eta zaindu dut, eta orain ez dakit non dagoen. Joan da? Ez dut sentitzen, baina badakit ahizpa batzuek hor dutela. Zilegi da, eta, agian, beharrezkoa.

Nola egin aurre begirada zuriari? Nola egin aurre emakume beltz eta “arrazializatu” gisa ditugun aurreiritziei? Nola egin aurre geure buruari? Zer gertatuko litzateke gure azalarekin identifikatzeari utziko bagenio? Zer, esan ziguten guztia-rekin identifikatzeari utziz gero? ●



**LEIRE NARBAIZA
ARIZMENDI**
IRAKASLEA

Ikurrina

Aberri Eguneke gauean, ohera joan aurretik zintzilikatu nuen leihoan ikurrina. Literal, arropa eskegitzeko pintzekin lotu nuelako arropa eskeitzeko sokan.

Berri-berria zen, estreinatu egin nuelako, iaz itxialdi ostean erosi banuen ere. 2020ko Pazko egunean zerbait jarri nahi izan nuen bentanan, baina ez neukan ezer. Hauxe da, hortaz, nirea den lehenengo ikurrina.

Gainera, independizatu nintzenetik, estreinakoz jarri dut aurten gure bandera bizi naizen etxean. Ez naiz oso ikurrinzalea izan, beharbada bazegoelako sinbolo horretan zeozer gogoko ez nue-

na. Koloreak gustuko ditut, diseinua ez hainbeste. Beste bandera batzuen aldean alaia da. Itxurak ez zidan ezinegon eragiten. Asperdura infinituak akaso? Klixe etenbakoa bihurtuta zegoelako? Ezin azaldu zergatia!

Katalanek *procés*-ean zabaldu zizkidaten begiak: bandera bat –edo batzuk– behar genuen, eta bageneukan. Bestalde, ezin ahaztu zenbatek defendatu zuten debekatuta egon zenean; gure aitak, besteak beste.

Aitxa akorduan, eta bere izenean, ibili zen dilindan bigurutzeduna etxeko leihoan. Iragana gogoan, etorkizuna iradokitzeke. ●